



**2022KO OTSAILAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko otsailaren 21ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko otsailaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 88 zk.dun fakturen zerrenda, BI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI euro ETA HAMA ZAZPI zentimotakoa (2.687,17 €) eta 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zk.dun fakturen zerrenda, HOGEITA HAMA LAU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI euro ETA BERROGEITA HAMA IKA zentimotakoa (34.649,51 €) bere espedienteetan daudenak, onartzea erabaki da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, ELEKTRIZITATE HORNIDURA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, energia elektrikoaren hornikuntza kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Erosketa Zentralak hasitako energia elektrikoaren hornidurarako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea. Espediente hori Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak izapidetuko du, 2011ko martxoaren 17ko Udal Batzarrak onartutako atxikipen hitzarmenean ezarritako termino eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauari jarraituz.

- 2.- Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.
- 3.- Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko, Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

IV.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.-

Lazkaoko merkataritzaren, zerbitzuen eta ostalaritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2016tik ematen dituen diru-laguntzak direla eta, Jarduera Ekonomikoko Batzordeak, 2022ko otsailaren 17an egindako bileran, Udaleko Gobernu Batzordeari diru-laguntza hauen oinarrien aldaketa proposatzea erabaki zuen.

Aldaketen edukia laburki esanda ondorengo da: aurretik dauden laguntzak bai kontzeptu eta bai zenbatekoetan ere bere horretan mantentzen dira, eta bi kontzeptu berrien laguntzak gehitzen dira: batetik, euskararen sustapenaren helburuarekin, "Tiket bai" fakturazio sistema berrian aplikazioa euskaraz jartzeagatik laguntza, eta bestetik, digitalizazioaren sustapenaren helburuarekin, "Goierriko Azoka" plataforman parte hartzeagatik laguntza.

Baita ere 2022ko deialdia egitea proposatu du jarduera ekonomikoaren batzordeak.

Honen aurrean, gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berritu eta modernizatzeko diru-laguntzak arautzeko oinarrien aldaketa, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Onarpen hau jendaurrean jartzea 30 eguneko denboraldian.

Hirugarrena.- Jendaurreko erakustaldi epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikotzat hartutakoa joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

Laugarrena.- Diru-laguntza hauen 2022ko deialdia egitea.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-01 zk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2022ko otsailaren 8an, astean 2 orduz, etxeko garbiketara laguntzeko. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.





LAZKAOKO UDALA

- 19-11-03 zk.dun esped.: zerbitzua astean 2 ordutik 9 ordura handitzea, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Aldaketa otsailaren 7tik aurrera egingo da. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %61 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 670 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 09-01-007 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 83,25 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 18-01-004 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 91,58 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99 da.
- 21-01-002 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, eta alokairu gastuetarako hilean 175 € ematea, biak urtariletik martxora. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 21-01-009 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 21-01-010 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5€ ematea, eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea, biak urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 22-01-001 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 81,40 € ematea, urtariletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %88 da.

Adin txikikoak eguneko zentrora joateko garraio laguntza.-

- 21-19-01 zk.dun esped.: Donostiako "Berriztu"ra -adin txikikoen eguneko zentrora-joateko, joan-etorriak ordaintzeko hilean 73,30 € ematea, sei hilabetez, 2022ko urtariletik ekainera arte, zigorrak irauten duen bitartean.

Gizakia Helburura garraioa.-

- 20-14-01 zk.dun esped.: Hernanira joateko bidaiengatik lehen hilean 100 € ematen ziztaion eta orain 88,80 € ematea, bidaien zenbatekoa jaitsi delako. Laguntza hau urtariletik abendura ematea.



VI.- HEZKUNTZA ETA EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara batzordeak tokiko gobernu batzarrari zuzendutako diru-laguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

2022ko AEK-Korrika.-

2022ko Korrikaren egitea dela eta, Korrikaren 22. edizioko kilometro baten erosketak (2022/01/28an sinatutako babesletza kontratua), 726 € ematea.

Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.335.00 partidatik egingo da.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak osoko bilkuran sartuko diren bi gaietarako buruzko informazioa eman du; San Donato Ikastolaren eskaera eta biztanleria unitateetan aldatzeko buruzko informazioa.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A blue ink handwritten signature, appearing to be "A. U.", is written on the page.